

Arrasate

P R E S S

2001.eko
martxoaren 23a
534. zenb.




HELLOWEEN
Musakolan
zuzenean

LEIBAR ARRAZDEGIAK Mitarre, 1 • Tf. 943 771379 Lorazendi, 1 • Tf. 943 791833	ERRASTI Kioskoa Durana, 19 • Tf. 943 799876
Maritzu Mertzeria Araba Ibilbidea, 24 Tf. 943 79 23 53	GEMES Durana, 40 Tf. 943 799918 EDERTZE ARETOA
Jon HARATEGIA Lorazendi, 1 • Tf. 943 79 11 69	Santa Kurtz Janari denda Tf. 943 79 28 19
MartiW BIZI Mitarre, 16 • Tf. 943 79 01 72	LEINTZ Erekoarren, 3 • Tf. (Ibilbidea) 943 79 78 63 (Ibilbidea) 943 79 08 84
FARMA BIZI Lorazendi, 8 Tfnoo-Faxa: 943 771818	IRIARTE Umeen denda eta lantzeria Durana, 8 • Tfnoo: 943 79 10 96
MIREN & ZURINE BITXEN-KONPONKETA Otalora kalea. Eliza aurrealdean Tfnoo: 943 771357	TXILARRA ELIKADURA BEREZIA Durana, 35 Tf. 943 79 10 15 Lorazendi, 9 Tf. 943 79 44 28
IMANOL JANARI DENDA Gorbea kalea • Tfnoo: 943 79 05 83	Irudi ELIKADURA MIXTA Ereko Baren, 20 b. • Tf. 943 798090
ALBOKA Gazte moda Durana, 36 • Tfnoo: 943 771610	HERRASTI AKEITA ETXEA CAFES Aralar kalea, 7 • Tf. 943 79 32 83
ELECTRONICA RITZORATZ * Armatuak eta mantentzenak * Inbuzkoak * Inbuzkoak * Akroak, gerozkoak eta parabolak * Taldetakoak baina salerosa eta inbuzak * Sareak digitalak Otalora, 14 • Tfno-Fax: 943 791610	Zubia Oinetakak Peltak • zapatak • gerritxoak Mitarre, 14 Tfnoo: 943 79 16 00
NERIAN LORADENDA Tfnoo: 943 79 70 66	PAPERDENDA IBER LOTERIA Otalora, 2 Tfnoo: 943 79 24

ARETXARTEK
bi bikoterentzako
bainuetxe batean
astebukaerako egonaldia
zozketatuko du.



2001eko maiatzaren 11n
izango da zozketa



ZACE CENTRO COMERCIAL LEZAMA, 14 - arriegitza - - arriesmia - TFNO. 943 770792	IBARRA ESTANKOEA BIZKAI, 3 • Tf. 943 792377
ASENSIO JANTZIDENDA Mitarre, 12 • Tfnoo: 943 79 10 72	Lasai BIZKAI, 3 • Tf. 943 792377
Frutan eta txarkuterian espezialitatea Angelines AUTOZERBITZUA Mitarre, 16 • Tfnoo: 943 79 61 42	JOSU Lezama merkatal zentrua Santa Kurtz, 24 • Tf. 943 770434
ARETXABAETA ITURGINTZA Durana, 16 • Tfnoo: 943 79 17 53	Larraz Peluqueria y Salón de belleza - LAZZATZEAK - MIKROPIGMENTAZIOAK - DEPILAZIO ELEKTRIKOA Lorazendi, 11 • Tf. 943 799079
GARBITZE Lorazendi 6, Behea • Tf. 943 79 53 61	Etxabe harategia Durana, 4 • Tf. 943 79 16 61
Jauregi okindegia Otalora, 10 Tf. 943 79 57 47	BEGI GADO OPTIKA Lorazendi, 10 • Tf. 943 79 98 21
zeniz liburudenda Henriko Plaza, 10 Tf. 943 79 75 53	Gertu Jakien elaborazioa eta salmenta Mitarre, 10 • Tf. 943 770612
ALDE ARETXABAETA Murubide IFA Murubide, 4 • Tf. 943 79 91 76	MAURRAK Umeendako moda Lezama merkatal zentrua, 15 Tf. 943 77 14 86
MARI KARMEN KONPONKETA Erekoarren • Tf. 943 79 59 85	Fruteria Errekabarren Errekabarren 943 799643
XUME Teladenda Erekoarren, 14 • Tf. 943 79 11 19	L-10 LORAZENDI, 10 TEL. 943 79 01 26 20080 ARETXABAETA

Zozketarako izenematea:
martxoaren 26tik apirilaren 2ra
Gazte Bulegoan 943 77 00 65

Antolatzailea: Diputazioa
Adina: 7 - 13 urte
uztaila eta abuztuan
Iraupena: 7 edo 14 egun

Udalekuak 2001

urteurrenak

Ferixalekuko haurren protesta

■ 58. zenb.

(1990-03-30)

1990eko martxoaren 26an kale agerraldia egin zuten Ferixalekuko ikasleek, ikastola ondoko obren hotsengatik protesta egiteko. Lur azpiko aparkalekuak egiten hastean, ikastola kexu agertu zen zarategatik. Promotoreekin batzarra egin, baina Barinaga enpresak ez zuen bete goizetan makinak ez erabiltzeko hartutako konpromisoa. Horregatik, protesta gisa, kalera irtetea erabaki zuten ikasleek.

Udala larrialdietarako plana prestatzen

■ 58. zenb.

(1990-03-30)



Larrialdietan laguntza emateko plan berezia egitea adostu zuen udalak. Hiru enpresaren eskaintzak aztertu eta gero, lanaren ardura Bilboko Prosesa enpresari adjudikatu zion, bi milioi pezetaren truke. Lanaren ildo nagusiak: arriskualdien zergatiak eta ondorioak jakitea; prest egon beharko liratekeen bitartekoak katalogatzea; larrialdiei erantzuna emateko plana; eta azkenik, plana ahalbidetzeko pertsonak koordinatzea.

1989an, 4.615 langabe Debagoienean

■ 58. zenb.

(1990-03-30)

INEMek kaleratutako datuen arabera, 1989. urtean, 4.615 langabe zeuden Debagoienean. Aurreko urteekin alderatuz, gizonezkoen langabeziak beherantz egin zuen bitartean, emakumezkoenak gorantz egin zuen izugarri. Adinari dagokionez, bai gizonezko eta bai emakumeen artean ere gazteek oztopo gehien izan zituzten. Hain zuzen ere, 25 urtetik beherako 849 mutilek eta 1.263 neskek.

besteek esana

« Nekazaritza ekologikoa ez da izango masiboa epe motzean. Gure kultura pizza hutena da. Informazio falta handia badago ere, funtsean, gutxiengo hori pixkanaka hazten doa, baina inondik ere ez dator bat kultura orokorrarekin, edo masen kulturarekin. Oro har, lau oinarri ditu nekazaritza ekologikoa: batetik, produktu sanoak, osasuntsuak, ekoiztea, batere hondakin toxikorik ez dutenak; bigarrenik, inguruarekiko ere kutsagarri ez izatea; hirugarrenik, tokian tokiko ekosistema errespetatzea, eta laugarrena, abereen ongizatea bilatzea eta lortzea. Betiko topikoa prezioa da, baina erosleak jakin beharko luke nola produzitua izan den».

Patxi Montero

EKO-NEKAZARITZA

ELKARTEKO IDAZKARIA

Euskaldunon Egunkaria

(2001eko martxoak 18)



ARKO

ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31

20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)

Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89

E-mail: arrasatepress@euskalnet.net

Arrasate Irratia: 943 71 17 31

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Iker Barandiaran. **Kazetariak:** Ubane Madera, Leire Kortabarria eta Xabier Urzelai. **Publizitatea:** Nerea Zallo, Arantza Lagunilla eta Natalia Martinez. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Zuzentzailea:** Sergio Azkarate. **Administrazioa:** Agurtzane Gáinzarain, Ane Beretxe. (Tel.: 943 71 23 90). **Disoluzioa:** Alex Azkarate. **Asteburuetako berriemakilea:** Lorea Agiriano. **Banaketako arduraduna:** Nisara Odriozola-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.500. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egten da.



Arrasateko Udaleraren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiararen laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

aurkibidea

- Lehen begiratu 3
- Asteko hitzorduak 4
- Inkesta 5
- Astearren erreposoa. 6
- Orain eta hemen. 7/8
- Txutxumutxuak 9/11
- Asteko gaia **Halloween** 12/14
- Kirolak jokoan. 16/17
- Zaldibar areto futbola . . . 18
- Kulturaren txokoa . . . 19/20
- Uhinetan barrena 21
- Foto zaharra 22



ZERBITZUAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Igalatorioa 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 943 79 39 00
(emakumeak) 943 79 44 11
Buru osasunerako zentroa 943 79 90 11

Larrialdiak

SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

Anbulatorioak

Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik
Barikura 14:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
asteburu eta
jai egunetan egun osoa
Arrasate
Astelehenetik
Barikura 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
• Txanda hartzeko: medikuntza
orokorra eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11
Aretxabaleta 943 79 74 58
Aramio 945 44 53 40

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulantiak 943 45 87 44

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
. 943 79 78 44
. 943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentroak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburategia

Monterron 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	09:00 (gaztelaniaz)
	11:00 meza nagusia (euskaraz)
	12:30 (elebiduna)

San Frantzisko eliza

Zapatua	10:00 (gaztelaniaz)
19:00 (elebiduna)	11:00 meza nagusia (euskaraz)
Domeka	12:30 (gaztelaniaz)
09:00 (euskaraz)	19:00 (gaztelaniaz)

Uribarri parrokia

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	11:30 (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

San Andres eliza

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	10:00 (elebiduna)
	11:00 (euskaraz)
	12:00 (gaztelaniaz)
	13:00 (gaztelaniaz)

Santa Teresa eliza

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	10:30 (gaztelaniaz)
	11:30 San Isidron (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

Santamañako eliza

Jaiegun bezpera eta zapatua	Domeka
19:00 (gaztelaniaz)	12:00 (gaztelaniaz)

leintzeko bazkideei deia

Martxoaren 29an, Leintze ehiza eta arrantzaren elkartek ohiko batzar orokorra egingo

du Monterronen. 18:00etan, lehenengo deialdian, eta 18:30ean, bigarrenean.

garizumako ekintzak

Hilaren 26tik 30era, Guztion Artean pakea guztion alde topaketak egingo dira abade-txean. Bestalde, Uribarriko parrokiak hainbat hitzaldi antolatu ditu. Bakea izango da

berbagai, besteak beste. Martxoaren 26tik 30era bitartean izango dira, Uribarriko parrokiaren, 19:00etan.

udalekuetan begirale

Martxoaren 30ean itxiko da Txatxilipurdiren udalekuetan begirale izateko aurkezpen epea. Curriculumak, argazki bat, begirale edo zuzendari titulua eta NAREN fotokopia bida-

li beharko dituzue Pablo Uranga kaleko 6. zenbakira. Umeen matrikulazio epea oraindik ez da zabaldu.

kinto ospakizunak

Martxoaren 31n bi kinto batzar egingo dira: 1937an jaiotakoena eta 1940an jaiotako emakumeena. Lehenengo batzarrerako izena emateko, deitu Jose Riviereri (943 79

10 57) edo Pedro Fernandezi (943 79 02 48), martxoaren 25a baino lehenago. Bigarreneko, eman izena Batzokian, martxoaren 26a baino lehenago.

mugarrara irteera

Besaide mendizale elkartek Mugarrara irteera antolatu du martxoaren 31rako. Izena

ematea 27an egin behar da.

epe bukaera

Immersok antolatzen dituen bidaia programen gaineko informazioa eskuragai duzue Udaleko Gizarte Zerbitzuan. Eskariak ere han

aurkeztu ahal izango dira, martxoaren 31 arte.

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

Egubakoitza, 23

- Irizar, Erguin

Zapatua, 24

- Amezuza, Santa Marina

Domeka, 25

- Zabala, Zarugalde

Astelehena, 26

- Ruiz, Magdalena

Martitzena, 27

- Morales, Araba

Eguaztena, 28

- Azkoaga, Ferrerías

Eguena, 29

- Azkoaga, Iturriotz

TOLDOS LECE C/B

Eguzkiari aurre egiten diogu inork baino hobeto

Kataide Industrialdea, 14
Musakola • ARRASATE
Tel.: 943 79 23 83
Faxa: 943 77 04 45


Zelan gelditu da Arbolapeta?

Arrasateko Udalak herritarren topaleku nagusienetako bat eraberritu du



Unai Balentziaga
(15 urte)
Ikaslea

Orain, ondo geratu da, baina arbola gutxi utzi dituzte. Bankuekin, ordea, gustura gelditu naiz.



Aitzol Lopez de Munain
(21 urte)
Ikaslea

Politago dago, baina banku gehiago jarri behar dituzte, oso gutxi daude eta.



Dioni Jimenez
(61 urte)
Etxekoandrea

Lehen baino txarrago, banku gehiagoren falta dagoelako. Aurreko jarlekuak proposagoak ziren, sinpleagoak eta indibidualagoak.



Jose Menendez
(66 urte)
Erretiratua

Ederto gelditu da, baina irtengune bat dauka, eta estropezu egiteko arriskua dago. Bestela, hobekuntza nabaria da.



Carmen Uranga
(65 urte)
Etxekoandrea

Nire ustez, banku gutxitxo jarri dituzte. Bestela, ondo ikusten dut. Oso gustuko dut plazatxo hori.



Iker Romo
(26 urte)
Langilea

Polita gelditzen dabil; hala ere, banku gehiagoren falta sumatzen dut.



Ines Egaña
(54 urte)
Etxekoandrea

Nire ustetan, garbiago eta txukunago gelditzen ari da; hala ere, oraindik zerbait falta zaiola bistan dago.



Filo Losada
(71 urte)
Etxekoandrea

Oso polita gelditzen ari da. Askok irabazi duela uste dut, lehen baino hobeto dago.

GORKA
ILEAPAINDEGIA
LUZAPENAK

ORDUTEGIA:
Astelehenetan itxita.
Asteartetik ostiralera:
09:30 - 20:00
Larunbatetan:
08:00 - 14:30

SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 943 77 13 78

BASATI TABERNA
DINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
TEL. 943 711768

USTEAK USTE

Garapenarekin bizi nahi?

Tamaina handiko azpiegitura lanak aurrez ikusita daude bailaran, gehienetan zirkulazio eta mugikortasun behar edo ohitura estuekin lotuta. Esaterako, Bergarako sailhesbide berria, eta zer esanik ez, Eibar-Gasteiz autobidea edo Abiadura Handiko Trenaren inguruan. Autoen etengabeko erabilera oso barnertuta dugunez, Eskoriatzako industrialdeen alboan, Aingeru Guardan eta San Prudentzioko bidegurutzean zirkulazioa moldatzeko aurrez ikusita dituzten biribilak pozik hartu dituzte askok. Horren alboan, ordea, San Prudentzio eta Epele arteko ibaiaren inguruan dagoeneko bota dituzten zuhaitz mordoxka pareka daitezke, bat baino gehiago sutan jarri dutenak. Horrek gogoeta ekartzen dit: duela gutxi Arrasateko Udaleko Ingurumen Sailak bideratutako inkestetan jende gehiena ingurumenarekin arduratuta omen dagoela azaltzen zen, horien artean, zirkulazioarekin arazoaz, baina garapen edo gertuko kolokan jarri gero, zalantzak zituztela.

Iker Barandiaran

astea bi hitzetan

■ MU Ikazokan

Lau egunez, Ikazokak Durangon antolatutako "Hezkuntza eta Berrikuntza azokak" erakusketan izan da Mondragon Unibertsitatea.

Ikazokaren helburua zen Euskal Herriko hezkuntza eskaintzarik garrantzitsuenarekin azoka antolatzea. Eta jakina, Mondragon Unibertsitateak bere eskaintzaren berri eman du lau egun horietan.

Mondragon Unibertsitateko ordezkariak adierazitakoaren arabera, jende asko hurbildu da unibertsitatearen erakustokira, batez ere, gazteak. Hain justu, aurtentzen, Gazteen Gunea egote-

ak lagundu ei die horretan.

■ Zoritxarreko eguna

Pasa den egunean, bi istripu izan ziren Arrasaten. Batean, Fagor Elektronikako bidegurutzetik gertuan, bi autok aurrez aurre jo zuten. Ondorioz, neska gazte bat eskualdeko ospitalera eraman behar izan zuten, zauri arinekin.

Bigarren ezbeharrak Udala bidean gertatu zen. Kasu honetan, Land Rover bat bidetik atera eta amildegitik behera joan zen. Bi garabi erabili behar izan zituzten autoa ateratzeko. Istripuaren ondorioz, gizonetako bat eskualdeko ospitalera eraman zuten.


■ Salaketa ekitaldia

Arrasateko Amnistiaren Aldeko Batzordeek deituta, salaketa ekitaldia egin zen egubakoitzean Mondragoan. 50 bat gazte ilaran jarri ziren herriko plazan hasi eta Maalako Errebalarraino, burua estalita eta eskuak atzean lotuta..

Eta horrela, parodia horren bidez, Haika taldearen kontra egindako azken atxiloketak salatu zituzten, eta baita Ertzaintzaren jarraera eta lege antiterrorista ere. Jendeari banatutako idatzi baten, 22 egunean 107 gazte atxilotu dituztela eta 80 etxe miatu dituztela ere salatu zuten Amnistiaren Aldeko Batzordeek.

■ Animalien babesa

Martitzenean zabaldu eta datozen bi asteotan, animalien gaineko erakusketa dago Monterronen. Hain zuzen ere, arriskuan dauden animalien gaineko erakusketa da. *Ezagutu, kontserbatzeko* izenburupean, 146 ornodun espezie daude ikusgai, Angel Dominguez marrazkigile bizkaitarrak egindako irudien bitartez. Animaliak lau taldetan daude sailkatuta: galzorio espezieak, kalteberak, bakanak eta interes berezia dutenak. Erakusketa horren helburua da natura kontserbatu egin behar dela jakinaraztea eta orain ematen den ezjakintasunari, zentzugabekeriari eta garapen itsuari aurre egitea.



UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

M

MEMESA

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

Egindako lanarengatik esker ona



Miguel Laspiur eta Jose Rodriguez.

Udalpe gastronomia-elkartekak ohorezko bazkide izendatuko ditu Jose Rodriguez, elkarteko presidentea, eta Miguel Laspiur, diruzaina. Udalpe elkartean urte luzez egindako lana eskertu gura diete bie. Izan ere, Jose Rodriguez 18 urtez izan da elkarteko presidentea, eta Miguel Laspiur, berriz, 20 urtez diruzaina. Eta bazkideen esanetan, fin asko egin dute lana.

Zapatuan izango da omenaldia. 65 bat lagun elkartuko dira bazkaria egiteko eta, ondoren, oroimenerako plaka bat emango diete bi omenduei.

40 URTE

Diruzain eta presidente izateaz gain, bi lagunok arduratu dira, baita ere, urte horietan guztietan elkarteko biltegia beteta eta eguneratuta edukitzeaz. Baita bazkideen ordainketez ere. Eta lan hori egiteaz gain, 40 urte baino gehiagoz izan dira Udalpeko bazkide.

Kontuak kontu, zapatuan jasoko dute hainbeste merezitako omenaldia, eta gero, euren karguak utzi eta ohorezko bazkide izateaz gozatu dute. Hortaz, zorionak, eta ondo bizi!

Saharako iheslariak bisitatzen

Xabier Zubizarreta alkatea eta Jose Mari Urizar, EAko zinegotzia, Saharako iheslariak bisitatzen izan dira lau egunez. Hain justu, Aljeriako basamortuetako lurralde baten bizi diren iheslariekin izan dira, Euskal Herriko erakundeetako beste 160 ordezkariekin batera, eta familiarteko beste 100 lagunekin batera.

ONDO ANTOLATUTA

160.000 lagun inguru bizi dira Aljeriako gune hartan, duela 25 urte Saharatik ihes eginda. Lau probintziatan dago banatuta hura, eta probintzia bakoi-

tzean 40.000 lagun inguru bizi dira. Horietako probintzia baten egon dira, hain justu, Mondragoeko ordezkariak, eta sahararrek bizi duten egoera latzaz jabetu dira. Edoze-lan ere, alkatearen esanetan, han izugarrizko gabeziak izan arren, oso ondo antolatutako herri bat ikusi ahal izan dute, "sekulako morala duena".

Eta gehienbat, laguntza politikoa behar du herri hark, eta zerbait egiteko asmo sendoarekin itzuli dira Mondragoeko ordezkariak. Oraindik ez dute asmatu zer egingo duten, baina horretan dabilta.

Aldaketak Fagor Garagartzan

Fernando Gomez Acedoren eta Pablo Mongelosen izendapen berriek aldaketa ugari eragin dituzte Fagor Garagartzan, kargu aldaketak, hain justu. Besteak beste, Belen Kortabarria izango da egosketa saileko kudeatzailea. Horrez gain, hauexek izango dira Fagor Elektragailuak taldeko

kargu berriak: Belen Kortabarria, egosketa saileko kudeatzailea; Idoia Ruiz de Azua, ontzi garbigailuetako arduraduna; Fernando Ipiña, osagai eta kalitate saila; Juan Andres Juaristi, finantzak eta Jose Luis Andres, giza baliabideak. Kargu hauek ekinean sartuko dira indarrean.

ARRASATE KRISTALDEGIA

Eskaintza bereziak leku aldaketagatik

%20 eta %50eko deskontua
erakusketako artikuluetan

Laster,

Kontzeziño, 18 behea. ARRASATE. Tel.: 943 77 07 74 / 943 77 16 59

Gazte batek Ertzaintzaren aurkako salaketa jarriko du

Martxoaren 9ra jo behar dugu gertaera horien berri jakiteko. Salatzailak kontatutakoaren arabera, M.B. gaztea lagun batekin zihoan autoan, 26 urteko X.E. gaztearekin, Ostarku dantzaleku inguruan. Autoa aparkatu eta irteera zihoazenean, uniformedun bi ertzain eurengana joan ei ziren, pistolekin apuntatuz eta autotik irteteko aginduz. Betiere salatzailaren esanetan, ertzainek lurrera bota zituzten; bata hantxe eduki zuten, pistolarekin etengabe apuntatuz. Besteari, M.B.ri, kolpeka eta irainka hasi zitzaizkion. Euskalduna izatearren eta euskaraz berba egitearren jaso omen zituen irain guztiak. Handik gutxira, ertzainen beste 2-3 auto iritsi ziren, eta haiek banandu zuten ertzai-



Gertaerak Ostarku alboko aparkalekuan jazo ziren.

na gaztearengandik. Ondoren, datuak hartu zizkieten eta bi isun jarri: bata, Ertzaintzaren argi seinaleei kasu ez egitearren, eta bestea, autoarekin zig-zag egiten ibiltzearren. Gazteak ukatu egin ditu Ertzaintzaren bi salaketak: han ez zegoela ez kontrol eta ez ezer adierazi du. Eta horrexegatik erabaki du salaketa jar-tzea, "Ertzaintzak esandakoa

ez delako egia".

Ertzaintzak, bere aldetik, adierazi du alkoholemia kontrola zeukatela ipinita Uribarri Etorbidean, eta arrasatearra kontrolaz paso egiten saiatu zela. Gaineratutakoaren arabera, gero, kontrola egin ei ziotenean, positibo eman zuen (0'9). Eta horrexegatik jarri dizkiote isunak. Orain, epaileak erabaki beharko du.

Etxebizitzarako eskubidea



Denontzat plataforma

Denontzat-ek, Mondragoeko Bazterketa Sozialaren Aurkako Plataformak, mozioa aurkeztuko du datorren asteko osoko bilkuran. Arrasatear guztiak txebizitzarako eskubidea izateko neurriak eskatzea da talde horren helburua. Horretarako, datorren egue-nean aurkeztuko duten mozioan, besteak beste, honakoa eskatzen dute: herriaren Egitamua Orokorren eraikuntzan herritarrek parte hartu ahal izateko neurriak hartzea eta Arrasateko gazteek txebizitza izateko aukera izan dezaten plangintza berezia egitea.

DEIALDIA

Bazterketa Sozialaren Aurkako Plataformak osoko bilkura horretan parte hartzeko dei egin die txebizitzaren auzian sartuta edo interesatuta dauden guztiei. Eta bereziki, gurasoen etxetik joan nahi duten gazteei.

Atentatua gaitzesteko bilkura isilak

Astlehenean eta eguaztenean, kale bilkura isilak egin ziren Mondragoen, bailarako gainerako herrietan moduan. ETAk egindako azken hiru atentatuak gaitzesteko egin ziren, Bartzelonakoa eta Valentziakoa eta Lasartekoa. Eguerdian, lehendakariaren deiari jarraituz, herriko plazan elkartu ziren. Iluntzean, ostera, Bakearen Aldeko Koordinakundeak deituta, Lau Kale plazan elkartu ziren.



IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE



PEUGEOT

Salmenta eta zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE


BARRAKAK DOAN!

Joan den egubakoitzean, zaldiko-maldikoa doakoa izan zen. Laguntxo mordoak elkar-tu ziren Garibai etorbidean, izan ere, horrelako aukerak aprobetxatu egin behar dira! Hauek biak beste bueltatxo bat emateko prest zeudela harrapatu genituen.



ZEREMONIA IKUSGARRIA VATIKANOAN

Urrutian, baina hantxe daude Aita Santua eta hainbat kardinal, San Pedro plazan. Clara Ezkurra eta beste 322 martiri dohatsu aitortu zituzten zeremonia duzue, eta hainbat arrasate-ar eta atxabaltar izan ziren han: 48, guztira. Arantxa eta Begoña Casadok utzi digute argazkia.



HAIZEAK ERAMANA...

... Zurgin kantoiko piboteak. Argazkian, txukun-txukun zeudenean ikus ditzakezue. Eskubanda margotu berri zegoen, eta ohar egiteko modu eraginkorra dela onartu egin behar. Pena, gero haizea atera zuela...

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

ILE APAINDEGIA

Alfonso X jakintsua, 1 behea
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

HIES BERRI

Tel.: 943 79 26 99



Txitxinpe

Berezitasunak

Kazuelatxoak

Otarateko hotz eta beroak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tel: 943 79 67 76



BIHAR, EURIA

Geroago eta gutxiago ikusten dugu zorrotzailea gure kaleetan. Guk orain bi aste harrapatu genuen, bizikletan, Erdiko Kalen gora eta behera. Atsotitzak dienez, zorrotzailearen txirula entzun eta hurrengo egunean euria egiten du.

IRRATIRA ETA, BIDE BATEZ, MUSEORA

Joan den martitzenean, Mertzadarietako DBHko 2. mailakoek Radio Euskadirako irratsaioa grabatu zuten Bilbon, eta gero, bide batez, Guggenheim museoa bisitatzera joan ziren. Hortaz, denetarik ikasteko aukera izan zuten.



ESTELLA ORTOPEDIA

Javier Estella, ortopediako teknikari tituluduna
Osakidetzarekin eta Lagun Arorekin hitzartua

Mastektomietan...

- Bainujantziak
- Protesiak
- Bularretakoak



Anita^{care}

Matxiategi, 5 • BERGARA • Tel.: 943 76 19 63



ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak**

Olarte kalea, 47 behea Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25



Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak
Ibilgailuak
Stand-ak
Itsasgarriak
Biniloa
Señalizazioak
Lonak
Erliebepun hizkiak

IKER BARANDIARAN

Ezagutzen genuen lehendik ere kazetari arrasatear hau: Arrasate Pressko kolaboratzaile izana da, eta Gara egunkarian kazetari, besteak beste. Orain, etxera bueltatu da, Arrasate Pressko zuzendari izateko. Ongi etorri!



GABONETAKOAK, UDABERRI ARTE

Portaloia apaintzen dute oraindik ere Gabonetako argiek. Ez dakigu hortxe ahaztuko zituzten, edo udaberriaren etorrera ospatzeko erabiltzea erabaki zuten. Akaso, hala izango da; orain, noiz piztuko dituzten zain gaude.

HEGO AMERIKATIK GEURERA

Hilabete ere ez daramate geurean, baina pozik asko dabil-tza, honezkero, Mundukideren eskutik etorri diren 13 hego-amerikarrak. Joan den astean, Arrasate Press eta GOITB ikusi zuten. Oso esperientzia aberasgarria izaten ari dela kontatu ziguten.

Sukalde altzarien fabrika eta horman sartutako armairuak

Super
Armeko

- Fabrikako prezioa
- Erakusketa zabala. 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Azken berrikuntzak

Kataide Industrialdea, 6. pabilioia
ARRASATE • Tel.: 943 71 25 08



Gambrinus
garagardotegia

- Menua:
bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

Gitarrek garrasi egingo dute Musakolako kiroldegian

Zapatuan (bihar), txima luzeak izango dira jaun eta jabe Musakola eta inguruetan; kolore ilunekin, praka estuekin eta bota altuekin etorriko dira. Eta aurretik, guztien gidari, Alemaniatic zuzen-zuzen ailegatuta, Helloween! Bost lagunek, bost musikaririk, dardarka jarriko dituzte kiroldegiko pareta metal doinuaren indarrarekin. *The Dark Ride* (Bide Iluna) da taldearen azkenengo lana, 2000. urtekoa. Baina, atzetik, lehenengo albuma atera zuenetik, 15 urteko jarduna du Helloweenek, eta duda barik, horrexen laburpena ikusi ahal izango dute Musakolara doazenek. Eta pozik, gainera.

Izan ere, heavyzaleendako talde mitikoa da Helloween. 80ko hamarkada hasieran sortua, XXI. mende arte bizi irautea lortu du, eta izen handiarekin, gainera. Klean esaten den moduan: a tope dabilta! Zeinek ez ditu eza gutzen talde horrek irudi moduan erabiltzen dituen kalabaza sinpatiko-gaiztoak...?

HEAVY METALA

Gitarren garrasiak oinarri hartuta, musika lasterra, bizia, erritmoduna, egiten du Helloweenek. Hori guztia ahots ozen eta txilioekin lagunduta. Musika klasikoaren kantuen

antzera, indartsu hasten dira abesti gehienak, musika-tresnei bidea emanez. Eta ahotsak sartzen direnean, badirudi ez direla benetakoak, hain dira zorrotzak zenbaitetan... Bes-tetan, Adagio goxo eta samur-rrak ere lantzen dituzte, bala-da eran.

Ezaugarri horiekin guztiekin, ez dago zalantzarik heavy motako musika talde baten aurrean gaudela. Halaxe zen 70eko eta 80ko hamarkadetan, eta halaxe da orain, XXI. mende-an.

ETENGABEKO BILAKAERA

Gentry izenarekin jaiotzen

Helloween. 1979. urtea zen. Taldearen sortzailea, berriz, Kai Hansen alemaniarra. Bi urte geroago, bi musikari berri sartu ziren taldean: Ingo Schwichtenberg eta Marcus Grosskopf. Eta taldeak izen berria hartu zuen: Second Hell.

1982an gaude. Michael Weikath gitarrista sartu zen orduan, eta berriro ere taldeak izena aldatu zuen: Ironfist bihurtu zen. Hiru urte gehiago igaro beharko ziren taldeak Helloween izena hartu arte. Orduantxe hasi ziren aurreneko lanak grabatzen: *Walls of Jericho*, esaterako. Oparoak dira hurrengo hiru urteak: 87an, *Keeper of the Seven Keys-part I* plazaratu zuten, eta

88an, disko horren bigarren zatia. Horiexek dira Helloweenen diskorik onenak, kritiko guztien arabera. Ordurako, bosgarren kidea ere sartu zen taldean: Michael Kiske abeslaria.

90EKO HAMARKADA

1989an, beste aldaketa bat egon zen Helloweenen: Kai Hansenek, taldearen sortzaileetako batek, Gamma Ray izeneko taldea sortu zuen eta Helloweenetik alde egin zuen. Taldeak asko igarri zuen hori, baina aurrera egitea lortu zuen. Bi disko eta sei urte geroago, *The Master of the Rings* diskoa kaleratu zuen Helloweenek, eta lehen aldiz agertzen

80ko hamarkada hasieran sortua, Helloween taldeak XXI. mende arte bizi irautea lortu du, eta izen handiarekin gainera



Michael Weikath "Weiki": bera eta Marcus dira hasieratik jarraitzen duten bakarrak. Taldearen benetako gidaria da, eta

oso gitarrista ona, soinu berezia ematen dio taldeari. Esaterako, Weikirenak dira *Power*, *Kings will be kings* eta *First Time* kantuak. Eta baita, latinez idatzitako *Lavdate Dominvm* kantua ere.



Roland Grapow: taldeko beste gitarrista da. Kai Hansenek alde egin zuenean sartu zen Roland: *Pink*

bubbles go ape diskoaren grabazioan sartu zen. Ez ditu abesti larregi egin, baina *Chameleon* diskoko *I don't wanna cry no more*, *Crazycat* eta *Step out of hell* berak eginak dira.



Andi Deris: oraingo abeslaria da. *Chameleon* diskoaren ondoren sartu zen taldean. Ahots melodiko boteretsua dauka eta berori izango da, seguruenik, Helloweenek bizi-bizi segitzeko arrazoirik

garrantzitsuenetarikoa. Letragile eta musikagile, bereak dira, esaterako, *We Burn*, *Time* eta *Before the War*. Azkenengo diskoko abesti asko ere (letrak eta musika) Andik egin ditu. Lanean diharduenean, Andi Tenerifen egoten da.



Albumak

- | | |
|--|---------------------------------|
| 1985/1986 Mini LP/Walls of Jericho/Judas | 1994 The master of the rings |
| 1987 Keeper of the seven keys -Part I | 1996 The time of the oath |
| 1988 Keeper of the seven keys -Part II | 1996 High live |
| 1989 Live in the UK/I want out live | 1998 The pumpkin box |
| 1989 Pumpkin tracks | 1998 Better than raw |
| 1991 The best, the rest, the rare | 1998 Karaoke albums Volumes 1&2 |
| 1991 Pink bubbles go ape | 1999 Metal Jukebox |
| 1993 Chameleon | 2000 The dark ride |



Marcus Grosskopf: taldea sortu zenetik jarraitzen du, eta baxu jotzaile gehienak

moduan, oso ezaguna ez izan arren, bere nortasuna agerian utzi du, eta askok kopiatzen dute bere estiloa. *Don't espit on my mind* abestia egin lagundu zuen.



Uli Kusch: oraingo bateria jotzailea da, eta Andi Derisekin batera sartu zen taldean. Gamma Ray eta Sinner taldeetan ere jo izan du. Oso bateria jotzaile ona izateaz gain, Halloweenen abestirik ezagunenetako batzuk berak eginak dira: *Push*, *Wake up the Mountain*.

Kai Hansen: Sortzaileetako bat da. Metal alemanaren aita dela diote batzuek. Hasieran, taldearen abeslari eta gitarrista zen, Michael Kiske hartu arte. *Keeper* diskoaren bigarren zatiaren ondoren utzi zuen taldea, eta Gamma Ray sortu zuen.

Michael Kiske: *Keepers* lehenengo zatian sartu zen, eta *Chameleon* disko arte jarraitu zuen. Batzuetan, metal alemanak izan duen abeslaririk onenetarikoa.

Ingo Schwichtenberg: Sortzaileetako bat izan zen. Bateria jotzaile ona, eta baita kantugile ona ere. *Chameleon* diskoa grabatu ostean utzi zuen taldea, 93an, eta 95ean bere buruaz beste egin zuen.



Chameleonen ondoren Helloween berriro ere aldatu zen. Baina, ordura arte, hauek osatzen zuten taldea, ezkerretik eskumara: Ingo Schwichtenberg, Michael Weikath, Michael Kiske, Marcus Grosskopf eta Roland Grapow

dira Deris (abeslaria) eta Kusch (bateria jotzailea) batera. Berri-tasun ugari sartu zituzten, bai-na Helloweenen estiloari kal-te egin barik. Urte horien arte-an, taldeak beste kide bat gal-du zuen: Ingo. 93an taldea utzi zuen, eta 95ean bere buruaz beste egin zuen.

Halaber, denetarik aurki dezakegu hamar urte hauetan. *Chameleon* (93) da, adibidez,

Helloweenzaleendako disko-rik ahulenetarikoak. Doinu arra-roak nagusitzen dira lan horretan eta taldeak kritika ugari jaso zituen. *Better than Raw* (98), berriz, lan ona dugu. Aurrekoak baino kalitate handiagoa du, garatuagoa da, eta oso gogorra. Eta azkenik, iaz, *The Dark Ride* aurkeztu zuten. Disko berriko abestiak bi multzotan banatuko ditugu: bate-

tik, abesti melodikoak, koru ugarirekin, eta *Keeper*-ak gogorarazten dituzten zenbait gitar doinurekin. Bestetik, abesti puntualagoak daude (*Escalation 666*, *Mirror mirror*), soinu astunagoekin. Azken baten, Helloweenzaleendako oso disko ona. ■

Ubane Madera

Bildumak

1989: *Pumpkin tracks*. Bilduma honetako abestiak zenbait diskotakoak dira: *Walls of Jericho*, *Mini LP*, *Judas EP*, *Keeper I* eta *Keeper II*. Oso kopia gutxi egin zituzten.

1991: *The best, the rest, the rare*. Goian aipatutako diskoetatik ateratako beste bilduma bat da.

1998: *The Pumpkin box*. Lau CD eta 70 orriko liburu bat atera zuten orduan.

1999: *Metal Jukebox*. Taldearen 15. urteurrenarekin batera atera zuten disko berezi hau. Hainbat talderen bertsioak egin zituen Helloweenek: Scorpions, Jethro Tull, Abba, David Bowie, Beatles... guztira, 12 kantu.

Gazte ikastaroak

argazkigintza

hastapen maila

Jon Ruiz de Zarateren eskutik
maiatzak 5 - ekainak 16 (21 ordu)
larunbat goizetan, 10:30etatik 13:30 etara
matrikula: 5.000 pta. / 3.000 ikasle eta langabetuak

izena ematea: Gazte Bulegoan 943 77 00 65

bio-dantza

hastapen maila

Fernando Mtnez. de San Vicente-ren eskutik
maiatzeko larunbatetan (5-12-19-26)
arrats. 4etatik 7etara
Arrasate Musikalen
matrikula: 4.000 pta. / 2.500 ikasle
eta langabeek

oharra: dantza mota bat baino gehiago
norbere adierazpena, bizitasuna,
sormena eta autoestima lantzeko bide
bat da bio-dantza.

izena ematea: Gazte Bulegoan 943 77 00 65



Lehen mailako saskibaloia



Martitzen arratsaldean sekulako giroa izan zen Iturripen.


Arrasate Kirol Proiektuak antolatutako ekitaldien artean, martitzeneko saskibaloia norgehiagoka izan genuen ikusgai. Tau Ceramica Baskoniak Cafes Aitona Askatuak taldearen aurka neurtu zituen indarrak. Partidu hasieran, minutu hunkigarri bat izan zen Eugenio Aialaren omenez, eta horren ondoren, saskibaloia fes-

ta hasi zen. Ume mordoia harmailetan eta puntako jokalaririk kantxan. Nahiz eta lagun arteko partidua izan, Errege Kopan kale egin eta gero, Tauk entrenamendu bat baino partidua serio bat jokatu zuen, eta Dusko Ivanovicek ligako taldea kantxaratu zuen. Askatuak taldeak hasierako minutuetan partiduari utsi bazion ere,

minutuak aurrera joan ahala, Tau bere maila erakutsi zuen, eta norgehiagokak, emaitzari dagokionez, behintzat, kolorea galdu zuen.

Bigarren zatian, Tau 51-34 zen aurretik, eta Gasteizko taldeak presionatuz eta defendatuz baloi asko berreskuratu zituen. Emaitza: 100-76. Ez zen besterik espero.

Gero arte, Eugenio



Eugenio Aiala, Kenci Arrasateko jokalaria ohia.

Aurreko asteburuan albiste txar bat jaso genuen arrasatearrok. Eugenio Aiala gazteak agur esan zigun. Beste gauza batzuen artean, saskibaloia maite zuen Eugeniok, eta Kenci Arrasateko jokalaria ohia zen. Lagunei eta senitartekoei elkartasuna eskaini nahi diegu zutabe honetatik. Beste barik, gero arte, Eugenio.

XIII. Aukea saria 2000



Iturripen jokatu zen partidua bigarren laurdenaren amaieran, aurreko urteko kirolari eta kirol talde onenek Aukea sariak jaso zituzten. Sarituak Lander Landaluze, Kenci Arrasate saskibaloia taldea eta Arrasate Kirol Proiektua izan ziren. Lander Landaluze motokrosean Euskadiko Enduro txapelduna izan zen iaz. Horrez gain, 1978an eta 1979an, EAE eta Nafarroako txapelduna izan zen, eta 1989

eta 1990ean, Gipuzkoako txapelduna.

Kenci Arrasate taldeak sekulako denboraldia jokatu zuen iaz, eta lehen mailara igotzeko txartela lortu zuen. Arrasate Kirol Proiektuak hamar urte egin ditu aurten. Euren helburuak dira kirola hezkuntzarako tresna gisa sustatzea, ikasleen osasun ohiturak bultzatzea eta osasuna bera hobetzea, eta kirolean euskararen erabilpena bultzatzea.

Sevillara Euskal Selekzioarekin

Hamasei urteko bi gazte Sevillan izango dira oraingo asteburuan, euskal selekzioarekin errugbian jokatzeko. Andoni Iñurritegik eta Pablo Mertzanek 16 urte dituzte, eta orain dela laupabost urte hasi ziren errugbian.

- Noiztik Euskal Selekzioan?

- **Andoni:** Lehen aldia da euskal selekzioan jokatu duguna. Probak orain dela hiru hilabete egin ziren, eta orain dela bi aste esan ziguten gu aukeratu gintuztela.

- Lehen aldiz irtingo zarete kanpora?

- **Andoni:** Bai, bueno, Arrasateko taldearekin Zaragozan izan ginen behin, eta kanpoko taldeak ere etorri dira hona jokatzera, baina lehen aldia da horren urrun joango garena.

- Kontaiguzue Sevillan zer egingo duzuen.

- **Pablo:** Guztira, hiru partidu jokatu ditugu. Eguen gauean abiatuko gara; Madrilera joango gara autobusez, eta hantxe treina hartuko dugu. Egubakoitz arratsaldean entrenamendua izango dugu, eta



Eugenio Ayala, Kenci Arrasateko jokalaririk ohia.

partiduak zapatu eta domekan jokatu ditugu.

- Euskal Herrian zein talde da indartsua?

- **Pablo:** Harrobi onena Hernani taldeak dauka, oso jokalaririk onak daude, eta taldea ere indartsua da.

- Eta kirol instalazio onenak dituen taldea?

- **Andoni:** Eibarrek

- Espainian, zein lekutan daude talde onak?

- **Andoni:** Valentzia eta Katalunia aldean daude talde onenak.

- Gustuko talde bat?

- **Andoni:** Zeelanda Berria

- **Pablo:** Zeelanda Berria

- Eta jokalaririk gustukoena?

- **Andoni:** Lomu

- **Pablo:** Lomu

- Sevillan izango da "hirugarren aldirik"?

- **Andoni:** Entrenatzaileak esan zigun parranda kontuez hantxe egingo dugula berba.

Trialsin txapelketa Udalan domeka goizean



Oraingo domekan, hilak 25, Gipuzkoako txapelketako azken proba ikusteko aukera izango dugu Udalan. Ekitaldia Arrasateko Motoclub elkarrekin antolatuta du, eta probak 10:30ean hasiko dira. Besteak beste, Iker Lezeta munduko txapelkunak parte hartuko du, eta junior, infantil, alebin eta nesken modalitateak izango dira.

Emaitzak

Sailkapenak

A taldea

Txeyenex 4 - YK Azkena 6
 Goma2 1 - Makanaki FC 0
 Aurrera Bolie 2 - IKP 5
 AC Surcos 11 - AL Ion 6
 Bikain Akad 13 - Serengeti 2
 Lasagabaster 3 - Leya 4
 Katxiporra 0 - Kom Alpargat 1
 Betrayer 1 - The Pippol 0
 Kanp Harrobia 1 - Dribling 10

B taldea

Akta 3 - Usotz Potroak 2
 KJ Basati 1 - Pepelus.com 5
 Kamasutra 9 - Alai Gozoliak 4
 Fragel Gol 0 - Full Duplex 1
 Txotx 2 - AT Celaya 6
 EPEH 0 - Sas T 1
 DKB Kobate 2 - Abocajarro 3
 Etxerat Taberna 4 - Iriztu 7
 Irati STS 8 - New Makai 5

A taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Txap Dribling	15	12	1	2	74	34	25
Kom Alpargat	15	11	1	3	69	56	23
Bikain Akad	15	9	4	2	92	56	22
AC Surcos	15	9	4	2	71	57	22
Aurrera Bolie	15	10	2	3	60	35	22
YK Azkena	15	10	2	3	60	42	22
Lasagabaster	15	9	2	4	72	47	20
Goma2	15	8	3	4	66	48	19
IKP	15	9	1	5	60	57	19
Serengeti	14	5	3	6	43	62	13
Leya	14	4	4	6	39	44	12
Katxiporra	15	5	1	9	42	60	11
Kanp Harrobia	15	5	1	9	40	68	11
Txeyenex	15	4	0	11	47	67	8
Betrayer	15	2	3	10	56	72	7
AL Ion	15	2	1	12	54	113	5
Makanaki	15	2	1	12	15	24	5
The Pippol	15	0	0	15	7	25	0

B taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Iriztu	14	12	1	1	71	25	25
Etxerat	14	10	1	3	86	44	21
AT Celaya	14	10	1	3	65	43	21
Rayo Aldeano	14	9	2	3	84	44	20
Kamasutra	15	9	3	3	81	42	19
Irati STS	14	9	1	4	81	52	19
Usotz Potroak	14	8	1	5	63	33	17
Pepelus.com	14	8	0	6	51	44	16
AKTA	15	7	1	7	65	56	15
Fragel Gol	14	7	1	6	57	50	15
DKB Kobate	15	6	3	6	50	50	15
Full Duplex	14	6	1	7	48	49	13
EPEH	14	6	1	7	41	59	13
KJ Basati	14	4	1	9	61	65	9
Txotx	15	3	2	10	31	68	8
SasT	14	3	1	10	27	78	7
Abocajarro	14	3	0	11	46	86	6
Alai Gozokiak	14	2	1	11	36	78	5
New Makai	14	2	0	12	30	108	4



BI TALDE KALERA

Aurreko asteburuan ere talde batek baino gehiagok kale egin du, eta antolatzaileek erantzun egin dute. EPEH taldeak zapatu arratsaldean jokatu behar zuen Iturripen, baina itxura denez, hiru jokalarik ez ziren azaldu, eta taldea kanporatua izango da. Hala ere, ez da kanpora joango den talde bakarra izango. Fragel Gol taldeak ere bide bera jarraituko

du, horiek ere ez ziren-eta jokatzera agertu. Talde horrek oraindik ere bigarren aldirako sailkatzeko aukera asko zituen, baina aukera hori galdu egin dute. Horrez gain, aipagarria da aurreko asteburuan talde askoren artean izandako parekotasuna. Guztira, bost partidu amaitu ziren bat eta hutseko markagailuarekin, nahiz eta horietako bi, ez aurkezteagatik izan.

Hurrengo partidak / 16. jardunaldia

Martxoak 24, zapatua Zaldibar

08:50	Serengeti - Txap Dribling	Epailea	Bikain Akad
10:00	Bikain Akad - Goma2		Txap Dribling
11:00	Usotz Potroak - Etxerat		Goma2
12:00	YK Azkena - Lasagabaster		Etxerat
13:00	Kom Alpargat - Txeyenex		Lasagabaster
14:00	Alai Gozokiak - New Makai		Kom Alpargat
15:00	Full Duplex - Iriztu		New Makai
16:00	Rayo Aldeano - Sas T		Iriztu
17:00	AL Ion - Kanpanzar Harrob		Rayo Aldeano
18:00	AC Surcos - Aurrera Bolie		AL Ion
19:00	AT Celaya - Abocajarro		AC Surcos

Martxoak 25, domeka Zaldibar

11:50	KJ Basati - Txotx	Epailea	Irati STS
13:00	Pepelus.com - Irati STS		Txotx

Atsedena: Leya, DKB Kobate, AKTA, Kamasutra, IKP, Betrayer.

laz baino parte hartzaile gehiago

Aurten, 747 gaztetxok parte hartuko dute Debagoieneko Eskola Arteko Abesbatzen Topaketetan, iaz baino 40 bat gehiagok. Oraingo zapatuan izango da XIV. jardunaldia, Amaia antzokian, eta bailarako hainbat ikastetxetako abesbatzek esku hartuko dute: guretik, Arrasate ikastola, Erguin eta Musakola herri eskolak eta Mertzediariak; Aretxabaletatik, Santa Rita Ikastola; Eskoriaztatik, Almen eta Jose Arana; eta Oñatitik, Santa Eskolastika Ikastetxea. Arizmendi ikastola da antolatzailea.



EUSKAL ABESTIAK

Kantu emanaldiak bi txandatan egingo dira: 11:30ean,

haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailako taldeek abestuko dute; eta 17:00etan, lehen hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailakoek eta derrigorrezko bigarren hezkuntzakoek. Talde bakoitzak bi abesti eskainiko ditu; gehienak euskal kantu herrikoiak izango dira, edo euskal musikagile ezagunen lanak. Goizeko saioaren bukaeran, Arrasateko Banda Txikiak joko du, eta arratsaldekoan, Goikobalu Txikik.

Ekintza horren helburua da bailarako abesbatzarekiko zaletasuna umeengan sendotzea eta umeei publikoaren aurrean euren lana plazaratzeko aukera ematea.

Filmetako musikak bandaren kontzertuan




Oraingo domekan, hilak 25, Arrasate Musikaleko bandak emanaldia egingo du Amaia antzokian, 12:30ean, Eduardo Arzamendiren zuzendaritzapean. Arrasate Musikalek antolatutako zikloaren bigarren saioa dugu. Joko dituzten pieza gehienak filmetako soinu-bandak izango dira.

MODERNOTASUNA

Batasun horren barruan, estilo guztietarako tarte izango da, bandako zuzendari gazte horri gustatzen zaion moduan:

La Gran Evasión, Leonard Bernstein-ena; *Marcha de la caballería ardanesa*, Andre Waignein-ena; *La bella y la bestia*, Alan Menken-ena; *Morricone*, Ennio Morricone-rena; *Oregón*, Jacob de Haan-ena; eta *Bailando con lobos*, John Barryrena; horra hor erreperitorioa. Eduardo Arzamendik esan digunez, erreperitorioa osatzerakoan, moldaketa modernoak dituzten piezak aukeratzen ditu. Gainera, filmetako soinu-bandak asko gustatzen zaizkie bandakoei.

“Ipuina, bizitzarako mapa”



Umetako garaira itzultzeko aukera izango duzu oraingo eguaztenean. Tim Bowley britainiarra eta Casilda Regueiro madrildarra arduratuko dira guztiaz. Esperientzia handiko ipuin kontalariak dira, eta egon diren leku guztietako publikoa lilitatu dute. Zuri eskatuko dizuten gauza bakarra? “Arreta eta inozentzia”, diote. Eurekin bat egin gura baduzu, zoaz Monterronera, 18:00etan gaztetxoa bazara, eta 19:00etan heldua izaneko gero.

BI HIZKUNTZA

Timek ingelesez kontaktzen du ipuina, eta Casildak gaztelaniara itzultzen du. Itzul-

penak ez die kalterik egiten. “Alderantziz: aberasgarria da”, esaten dute. “Hizkuntza bakoitzaren musikaltasuna jasotzen du publikoak, eta bi hizkuntzak dakizkienari bere buruan irudia sortzeko astia ematen dio”.

KLASIKOAK

Ipuin klasikoak eta kondairak kontaktzen dituzte, gehienetan umore onez. Ikasgaiak ere badituzte: “Bizitzarako mapa da ipuina: gizaki askoren esperientziaren berri ematen digu modu xamurrean. Horregatik, bizitzarekin zirikusia duten ipuinak aukeratzen ditugu, giza harremanen inguruan berba egiten dutenak”.

ALVARO ARRIZABALAGA (ARANZADIKO KIDEA)

«Labeko Koba ohiko erreferentzia izango da etorkizuneko ikerketan»

Hilaren 13an, *Labeko Koba -Euskal Herria. Hienak eta gizakiak goi paleolitikoaren hastapenetan* liburua aurkeztu zuten. Aranzadi Zientzia Elkartearen hainbat kidek idatzi dute, Alvaro Arrizabalagaren eta Jesus Altunaren zuzendaritzapean. *Labeko Koban 1987an* hasitako indusketen inguruko ondorioak laburbiltzen ditu liburua. Arrasaten ere laster aurkeztuko dute.

– **Liburuan, Goi Paleolitikoko artelan baten berri ere ematen duzue: Labeko Koban aurkitutako uharria.**


– Bai, eta iberiar penintsula osoan aurkitu den arte- erakusgarri zaharrena da; baina, bere mailan eskas samarra ere bada; hori baino aurkikunde askoz garrantzitsuagoak egin ditugu.

– **Adibidez?**

– Labeko koba erakundearen arteko lankidetzaren eredu polita da. Foru Aldundiak saihesbidea egin gura zuen Labeko koba zegoen lekutik. Nahiko itxura txarreko egoera zen, baina negoziazioa egin zen, eta aztarnategiko kultura ondarea gorde ahal izan da. Hain eredugarria izan da lan mota hori, ezen munduko arkeologia kongresuetan aipatu izan den. Bestalde, horrelako baldintzetan lan egiteak metodoak egokitzera behartu gintuen. Horregatik, Labeko Koban egindakoa oinarria da, lan-metodoak zelan egokitu jakiteko.

– **Aztarnategiak berak zein garrantzia du?**

– Iberiar penintsulan, Goi Paleolitiko garaia oso gutxi landu da, eta garrantzitsuenen artean dago Labeko Koba. Aurrean nezake Labeko Koba ohiko erreferentzia izango dela arkeologia



ikerketetan. Izan ere, oso kasu gutxitan argitaratu da aztarnategi baten inguruko indusketen eta ikerketen ondorioak, Labeko Kobarekin gertatu den moduan. Iberiar penintsulan, bakarrik beste kasu bat dago.

– **Orduko gizakiaren inguruan zer aurkitu duzue?**

– Hainbat bitxikeria: esaterako, orduko garaiak ez ziren uste bezain hotzak izan; harrizko tresneria guztiz eraberritua zutela Labeko Kobako gizakiek, eta Erdi Paleolitikoarekin zerikusirik ez zuela... Gainera, errinozeroen eta hienen aztarnetan, penintsulako lehenengoetarikoa da.

– **Lan hori aplikagarria izango da Lezetxikiren kasuan?**

– Zalantza barik. Lezetxikin apaingarri bat agertu zen; hori Labeko koban aurkitutakoarekin bateratzen badugu, ikusiko dugu Goi Paleolitikoko gizakiak bazuela, kultura aldetik, sinboloei garrantzi handia ematen zien portaera. Horregatik, Labeko Koba eta Lezetxiki osagarriak dira.

aste gazte

■ DIRULAGUNTZAK

• Hondarribian, IV. arte ikastaroan parte hartzeko dirulaguntzak. Maiatzaren 2tik ekainaren 16ra bitartean egingo den ikastaroan parte hartzeko aukera. Epea: martxoak 27.

• Udako Ikastaroak, EHU-UPVk antolatuta, hainbat arlotan, ekainean hasi eta iraila bitartean egingo diren jardunaldiak, ikastaroak, mintegiak eta abar. Epea: apirilak 7.

■ UDALEKUAK

• Foru Aldundiaren eskutik, 7-13 urte arteko programa: aisialdia, kirola, ingelesa, bertso-laritzak eta hainbat tailer egiteko aukera. Epea: apirilak 2.

• Euskal udalekuak: Abaigar, Bernedo, Goñi edo Urdiroitzen egonaldiak egiteko aukera. Epea: apirilak 20.

■ LANA

• Arrasateko Udalerako, prebentzio, gizarteratze eta drogamenpekotasun teknikariaren behar da. Epea: martxoak 29.

■ HEZKUNTZA

• LHko titulua (teknikari laguntzailea) lortzeko eskolakoek besteko ikasketen azterketa deia. Epea: martxoak 31.

■ IKASTAROAK

• Udaleko Gazteria Sailak antolatuta, Bio-dantza ikastaroa, nor bere adierazpena, bizitasuna, sormena eta autoestimua lantzeko ikastaroa. Maiatzeko zapatu arratsaldetan, 16:00etatik 19:00etara. Izena ematea: 4.000 Pta/ 2.500 Pta ikasle edo langabeendako.

« Penintsulan, Goi Paleolitiko garaia oso gutxi landu da, eta garrantzitsuenen artean dago Labeko Koba »

Argibideak:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 943 77 00 65

Koldo Izagirrek Arrasate Irratiaren galderei erantzungo die

Igo Autobusera Astelehenean, 11:30ean

Bi arrazoik bultzatuta elkarrizketatuko du Arrasate Irratiak Koldo Izagirre idazlea: batetik, Iokin Zaitegiren gaineko liburua egin duela. Zaitegiren hainbat poesia aukeratu, eta horiekin osatu du liburua Izagirrek. Baina bada beste arrazoirik idazlea elkarrizketatzeko. Idazten diharduen nobelaren lehenbiziko atala "on-line" jarri du Koldo Izagirrek, eta nobela idatzi ahala, irakurtzeko jarriko ditu kapitulu berriak. Webgunea bisitatzen dutenen iritzia, proposamenak eta kritikak kontuan hartuko dituela esan du Izagirrek. Susa argitaletxearen webgunean aurki daiteke Izagirreraren eleberrri berria.



Sahararrak

Behin baino gehiagotan egin dugu berba erbesteetan bizi diren sahararren gainean. Orain dela aste batzuk, maratoia egin zen Aljeriako basamortuan, eta inguruko lasterkari batzuk hantxe izan ziren. Bestetik, Arrasateko Udaleko ordezkari batzuk ere kanpamentuak bisitatzen izan dira. Erbestean bizi diren sahararrak hizpide, martxoaren 29an, 10:30ean.

Oscar sariak



Astelehen goizaldean banatuko ditzute Oscar sariak, hemen gaua denean, hain zuzen. Film eta aktore sarituak zeintzuk izan diren jakin gura baduzu, Arrasate Irratia piztu, astelehenean, 10:15ean. Saioan esku hartzen baduzu, gainera, Florida-Guridi zinemarako lau sarrera jaso ditzakezu.

kontzertuak

BERGARAKO JAM ETA GO-JAMEKO KONTZERTUETARAKO SARRERAK.

Martxoaren 28an: **Guano Apes** (sarrera 1)

Martxoaren 30ean: **DJ James**

Ruskin+Ima+Orlando (sarrera 1)

Elliot Murphy (sarrera 1)

Martxoaren 31an: **The Nomads+Bummer** (sarrera 1)

Egun hauetarako **SARRERAK** zozketatuko ditugu. Azken eguna: datorren egubakoitza. Zozketa Arrasate Irratian egingo da.

Izen-deiturak:

Tel.:

Zein Kontzertu?

Bidali gurea: Arrasate Press, Otalora 31 edo deitu Arrasate Irratira: **943 71 17 31**.

arrasate
irratia



ASTELEHENA - OSTIRALA

- 09:00 Egunon Arrasate eta prentsaren erreposoa.
- 09:55 Eguneko hitzorduak.
- 10:00 Igo autobusera I.
- 11:00 Albistegia.
- 11:15 Igo autobusera II.
- 12:30 Agenda, eskelak...
- 12:45 Albistegi nagusia.
- 14:00-18:00 Errepika.

ASTELEHENEAN

- 20:00 Jokoz Kanpo.
- 21:00 Draxtor.
- 22:00 In Session.

MARTITZENEAN

- 20:00 Hi bizi hadi.
- 21:00 Jakidiplost.

EGUAZTENEAN

- 20:00 Binilo ordua.
- 21:00 KK2A.

EGUENEAN

- 20:00 Ostegun-Ero.
- 21:00 Arakatzen.

EGUBAKOITZEAN

- 20:00 Planing Prest.
- 21:00 Kale Doinuak.

ZAPATUAN

- 10:00 Bihurrikerietan.
- 11:00 Musika klasikoak.
- 12:00 Bi zoro ta zu.

DEKORAZIOA

Zoruak • Lijatu eta barnizatuak •
Erradapiak • Leihoak • Ateak •
PVCko leihoak •
Aluminiozko leihoak •
Eskailerak • Armairu enpotratuak...

GREMIOEN KOORDINAZIOA

Erakusketa eta biltegia:
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE
Tel.: 943 77 11 20 • Faxe: 943 77 11 20

Lore

- Lurrindegia • Kabina •
- Fotodepilazioa •

Olarte kalea, 10 • Tel.: 943 79 52 50

**Hilbera
kafetegia**

Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tel.: 943 79 22 70



A skok uste izan dugu ikasle-
en arteko trukeak duela
gutxiko kontuak direla, bai-
na orain dela urte batzuk ere
egiten ziren, jeneralean, eta
orain bezala, hizkuntzak ikasteko.

Truke horien adierazle da oraingo aste-
ko argazki zaharra. 1961-62. urtekoa da.
Gazteluondo kalean dago aterata, "Txoza-
gorri" esaten zitzaion bidearen hasieran. Eta
argazkian ageri diren mondragoetarrez
gain, Frantziatik gaztelania praktikatzera
etortzen zen neskatila bat dago. Asko gus-
tutzen ei zitzaion, gainera, hona etortzea;
hemen, bakarrik irteteko aukera ematen zio-
ten, eta Frantzian ez zen horrela izaten.

Gure protagonistak kontatu digunez,
Frantziara (Saint-Quintinera) joaten zene-
an, lagunaren guraso edo anaiaren batekin
irten ahal ziren; bakarrik, sekula ez.

Hauexek dira argazkiko neskatilak: har-
mailan eserita daudenak, ezkerretik esku-
mara, Jesus Mari Markaide, Jocelyne Ducar-
ne frantsesa, Eleni Marcaide eta Begoña
Etxebarria dira. Lurrean makurtuta daude-
nak: mutila Gregorio Markaide da eta ema-
kumea, Marilu Markaidè.

Goian, ezkerretik eskumara, Achen
Etxebarria, Mertxe Etxebarria eta Jesusi
Etxebarria daude.

Argazkia eta berriemailea:

Achen Etxebarria.



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

MARGA

Iturriotz 21. Arrasate.
943 71 17 40.
San Pedro 20. Bergara.
943 76 05 37.

Ezkontzak
~
Jaunartzeak
~
Ekitaldi bereziak
~
Estilodun eguneroko arropa ere badago




BRINKOLA

Biltegia eta lantegia: Legazpi Bidea, z/g Erakusketa: Artiz kalea (Orbegozo parean) Tel.: 943 72 64 53 ZUMARRAGA

PVC ETA ALUMINIOZKO LEIHO ISOLATZAILEAK ZERBITZUA-KALITATEA-BERMEA

- PVC eta aluminiozko leihoetan, aukerarik zabalena salneurrik onenean, eta BILTOKIA ETA LANTEGIAREN JABETZA GUREAK IZANIK, BITARTEKARI BARIK.
- Kolore guztiak ditugu: sapel, haritz, kaoba, pinu eta abar.
- Gure salneurrien (instalazioa barne) eta leiho zuri eta egurrezko imitazioen alde bakarreko adibideak.

Aluminio zuria 96.000 pezeta	Alum. zuria 129.000 pezeta	Alum. zuria 117.000 pezeta	Alum. zuria 79.000 pezeta	Alum. zuria 110.000 pezeta	Alum. zuria 92.000 pezeta
PVC zuria 96.000 pezeta	PVC zuria 129.000 pezeta	PVC zuria 117.000 pezeta	PVC zuria 79.000 pezeta	PVC zuria 110.000 pezeta	PVC zuria 92.000 pezeta
Egurrezko imitazioa 110.000 pezeta	Egurrezko imit. 140.000 pezeta	Egurrezko imit. 130.000 pezeta	Egurrezko imit. 87.000 pezeta	Egurrezko imit. 122.000 pezeta	Egurrezko imit. 107.000 pezeta



Aldakorra

- Aluminiozko pertsiana eta kaxoi termikoa
- Kamera bikoitzeko beira
- Barneko jamba
- Junkiloa molduran
- Egurrezko kaxoi zaharren berrizketa

Konpromiso bariko aurrekontuak
Zure neurriko finantzaketa
Gure udaberriko eskaintza aprobetxatu
Leihoa 20 egunean jarriko dugu.



**Aire girotua
duen Opel Astra
1.960.000 pezetan ***



- Opel Astrak, serieko ekipamenduarekin, denetarik dauka: •ABS sistema•Aurreko aire poltsak
•Alboetako aire poltsak•Direkzio lagundua•Kristal-igogailu elektrikoa aurrealdean•Ateen itxidura zentralizatua
urrun-managailuarekin•Bolante erregulagarria•Autoa ez lapurtzeko sistema elektronikoa
•Orain, aire girotu eta guzti, 1.960.000 pezetatik aurrera

*11,70 €. P.V.P. Fabrikatzaileak gomendatutako salneurria penintsulan eta Balear Uharteetan. Opel Astra 1.6 Club, 3 ate. Hau guztia barne: promozioa, BEZ, matrikulazio zerga, garraioa eta Prever Plana berundun gasolina autoetan. Hil bukaera arteko promozioa.

OPEL

TALLERES OLA

Olabarrena auzoa z/g • Tel.: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47 • BERGARA

TAKOLO AUTOAK, S.L.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEn • Araba etorbidea 3 (Eskatu pabilioia) • Tel.: 943 79 05 86